

# BABESTUA

*Sandra (Kolonbia, 1979). Azaroan, hogeitun urte beteko dira Gipuzkoara heldu zenetik. 18 hilabeteko semearekin lur hartu ondoren, lehen bi urteak ez ziren batere errazak izan berarentzat. Urte askoan etxeko langile gisa lan egin izan du. Nazionalitate bikoitza du.*

## ***Duela gutxi jaio da zure bigarren semea.***

Bai, duela sei hilabete. Erditzea ez zen batere erraza izan. Gogorra izan zen, baina nire umea, orain, ondo dago. Forzepsetara jo behar izan zuten, eta erditzean kokzixa hautsi zitzaidan. Aseguru bati esker, erresonantzia bat egin eta haustura frogatu zen. Gaur egun errehabilitazioan murgilduta nago, nahiz eta oinazeak ditudan.

## ***Erditu ondoren ez zeunden ondo.***

Arrunt gaizki nengoen; ezin nintzen eseri... Joan eta etorri ibili ondoren, asegurura jo, eta hor ikusi zuten kokzixeko haustura.



## ***Senarra lanik gabe egon da pandemian.***

Frantzian lan egiten du duela zenbait urtez geroztik, eta, konfinamendua dela eta, ABEEEn (Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedientea) dago. Ea laster deitzen dioten berriz ere lanean hasteko.

## ***Egoerari aurre egiteko, CARITAS GIPUZKOARA jo duzu.***

Hala da. Caritaseko gizarte-langileak babestu nau deseginda bainengoen. Laguntza ekonomikoa eman didate janaria eta haurrentzako pixoihalak erosteko. Konfinamendua dela eta, CARITAS GIPUZKOAKO gizarte-langilearekin harremanak telefonoz izan ditut baina oso atsegina izan da nirekin. Etorkizunari osasuna eskatzen diot oraindik ez bainago %100ean. Nire helburua da nire onera etortzen naizenean prestakuntza-ikastaroren bat egitea.

**CARITASEKO GIZARTE-  
LANGILEAK BABESTU NAU  
DESEGINDA BAINENGOEN**